

Kontu gero....

Goi goyenetik begira zauden
 Iru chorroko chapela
 Geldirik utzi neskacha arri
 Kontu nerekin bestela:
 Aztu bazaitzu jakiñ ezazu
 Pake guardian zaudela
 Eta batere emakumerik
 Palaka ez dezazula.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.

*
 * *

NEURRI BERRIYA

(NERE ADISKIDE ETA KOŠKETAKO LAGUN ZAR MARZELINO SOROA-RI)

Astuentzat ganbel bat
 egiñ nairik Gaintzan,
 jaun bat asi omentzan
 baña aiñ lan gaitzan,
 zeñentzat neurriyura
 moldatzia gaitz zan.
 Eche mutilla nola
 ari zan baratzen,
 nonbait pentsatu zuben
 bere esperantzan,
 lagunduko ziyola,
 eta jakiñ zezan,
 deitu ta morroyari
 esan ziyon zer zan.
 Onentzat nonbait nola
 gauza gaitzik etzan,
 eranzun ziyon gizon

jakintsuben gisan,
 ganbel neurriya nola
 berarekiñ zeukan.
 Entzun eta jarri da
 lenengo zalantzan,
 baña au konturatu
 zanian, poz dantzan
 iya iya asiyaz
 bere alabantzan,
 ara neurri kontuba
 nola ziyon esan:
 —Altuz jarri zak nere
 pechuraño markan,
 zergatikan astua
 zeñ da aundiya dan,
 ni baña aundiyago
 ez litekek izan.

V. IRAOLA.